


Noaia!!



Tratamenduan da
Joxe Domingo Aizpurua



Aurtengo Sagardo Eguna
mundiala izango da



Auto Guria




Auto Konponketa

Pre I.T.V.

Marka guztiak

Osinalde, 9 • USURBIL (Gipuzkoa)

☎ 943 363 298 • Faxe: 943 363 862

Sañarrienea baserria gutxi gorabehera XVI-XVII. mende ingurukoa da eta Santuenea auzoan kokatzen da, erribera ondoan. Gaur egun orduko baserria izan zenaren aztarna batzuk bakarrik mantentzen dira zutik; 1960. hamarkadan baserria erori eta zati bat bakarrik berre-raiki zuten. Sañarrienea baserria Atxegako leinuaren jabegoa izan zen. 1947an, San Millango markesen ondorengoek ordu arte bertako maizterrak ziren Martin Sagardia eta Juana Manterola senar-emazteei 45.000 pezetaren truke saldu zieten. Sagardia familia 1980 arte bizitu zen bertan eta baserria ia hondakinetan zegoela saldu egin zuten. 1988tik aurrera Tello-Arostegi familia jarri zen bizitzen bertan. Argazkiari erreparatzen badiogu, Sañarrienearen ondotik trenbidea pasatzen dela ikusiko dugu. Oria ibaiaren bi alboetara erriberak nagusitzen dira eta gaur egun dagoen Zumartegiko industrialdearen aztarnarik ez dago. Urrunean berriz Atxega jauregia eta San Inazio auzoko zenbait etxe ikus ditzakegu.

Zalao Arnaiz Ibarguren



1980. hamarkada, Sañarrienea baserria, Santuenea, Noaua! K. E.

Noaua!!

NOAUA! Kultur Elkarte BORDABERRI 3 Eguzkitzaldea - 20.170 Usurbil
Tlf.: 943 36 03 21 / elkarte@noaua.com / www.noaua.com

Jendaurreko ordutegia: 10.00-14.00 / 16.00-19.00 astegunetan

Elkarteko lehendakaria: Ana Aizpurua, elkarte@noaua.com

Aldizkari koordinatzailea: Imanol Ubeda, erredakzioa@noaua.com

Idazkaria: Alaitz Aizpurua, elkarte@noaua.com

Publizitatea: Intza Salsamendi, publizitatea@noaua.com

Kolaboratzaileak: Lontxo Zubiria, Ane Manzisidor, Maria Angeles Arruti, Ainhoa Salsamendi, Maria Jesus Urbiet, Nerea Korta, Aritz Gorriti, Jone Eizmendi, Ainara Arnaiz, Begoña Rekondo, Iñaki Agirresarobe, Ana Urdangarin, Eneko Harreguy, Iñaki Labaka, Koldo Huegun, Aloña Loidi, Imanol Goenaga, Agustín Esnaola, Alex Tello, Pako Agudo, Sara Lazkano, Nerea Aizpurua, Alazne Begiristain, Xabier Arregi, Edorta Agirre, Pello Aranburu, Ainara Uribe, Joseba Pellejero, Maider Makazaga, Aloña Pulido, Zalao Arnaiz, Jakoba Errekondo, Ainhoa Azpiroz, Aitor Landaluze, Josu Danberri, Luis Aranalde, Nerea Zinkunegi, Idoia Torregarai. Denborapasak: LUMA, O.E.

Bazkidetza: Aitziber Aranberri.

Erredakzio kontseilua: Imanol Ubeda, Zalao Arnaiz, Agurtzane Solaberrieta, Joxe Luis Arrastoa, Alaitz Aizpurua, Nerea Korta.

Informatika: Topaguneko informatika zerbitzua.

Banaketa: Miren Azkonobieta, Txelo Vidal eta Kerman Errekondo.

Elektrikaria: Iñaki Salsamendi.

Tirada: 2.600 ale

Lege-Gordailua: SS-668-96 - ISSN: 1136-6818

Inprimategia: Antza. Zirkuitu Ibilbidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.

IKA MIKA ATALEAN PARTE HARTU NAHI BADUZU, GOGOAN IZAN IDATZIAK GEHIENEZ 2.000 KARAKTERE IZANGO DITUELA. ALE BAKOITZEAN EZ DIRA BI IKA-MIKA BAINO GEHIAGO ARGITARATUKO. IKA-MIKA BAT BAINO GEHIAGO IRISTEN BADA, NOAUA!k IDATZI HORIETAKO BAT HURRENGO ALE BATEAN ARGITARATZEKO ESKUBIDEA IZANGO DU. IDATZIA ARGITARATZE-DATA BAINA ASTEBETE LEHENAGO EKARRI BEHAR DA.

NOAUA!k ez du bere gain hartzen IKA MIKA atalean eta, orohar, aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.

Aurkibidea

SANTIXABELETAKO DANBORRADA _____ **5. OR.**

JEXUX ARTZEREN OMENEZ _____ **6. OR.**

SAGARDO EGUNA, MUNDIALA _____ **8. OR.**

Apirilaren 12an Sagardo Eguna aurkeztu zen Saizar sagardotegian. Aurkezpena egin izanak badu bere arrazoiak: aurtengoa XXV. izango da.



JOXE DOMINGO AIZPURUA _____ **10. OR.**

MAIATZAREN LEHENA BEGIBISTAN _____ **12. OR.**

PLIS, PLAS, TXALO TA JOLAS ZIKLOA _____ **13. OR.**

HERRI ARTEKO PILOTA TXAPELKETA _____ **16. OR.**

EGIZU EUSKARAZ ERRENTA AITORPENA _____ **18. OR.**



Usurbilgo Udaia



Gipuzkoako Foru Aldundiak diruz lagundutako aldizkaria



Kultura sailak diruz lagundutako aldizkaria



Euskal presoak

Euskal Herra!



LUIS ARNALDE

Apostasiaz gogoeta

Hitz potolo samar honek zera esan nahi du: Eliza katolikoaren bataiatu zerrendatik irtetea, ezabatzea. Ez da nahastu behar heresiarekin: hau da, uko egitea Elizaren egia edo dogmaren bati.

Gutziz errespetagarria da erabaki hori. Norbere kontzientzia gune sakratua da eta inork ez dauka eskubiderik bertan sartzeko. Pauso hori eman aurretik, sinestendunak asko sakondu ditu bere arrazoiak; ez zait iruditzen arinkeriaz ibiltzen denik edo jokatzten duenik kristau zerrendetatik ezabatzea eskatzen duenean.

Zergatik egiten dute? Eskiera pare bat irakurri ditut eta orohar, honako arrazoi hauek aurreritzen dituzte: Elizaren dotrina atzerakoia dela, batez ere moral arloan, hots, homosexualitateari dagokion esparruan, izan ere sektore handi batek bekatutzat jotzen baitu jokaera hori; Eliza ofiziala nahiko homofobia dela diote. Preserbatiboen gainean mezu integrista zabaltzen duela. Elizak ematen duen irudia guztiz matxista dela, gehienetan emakumearen rola bigarren edo hirugarren mailakoa izaten jarraitzen duenez oraindik. Eliza boteretsuekin uztartuta ikusten omen dute ia beti. Batek esaten zuen: "Jesusen praktika iraultzailearen manipulatzailea besterik ez da Eliza".

Eskiera hauek iristen direnean, Donostiako Elizbarrutiaren jarrera zera da: lehenbizi, entzun, sakondu, hitz egin apostasiaren eskaera egin nahi duenarekin; lagundu eman nahi duen pauso hori ahalik eta gehien hausnartua izan dadin; ez du presiorik egiten ideia hori burutik kentzeko. Eta Eliza uztea erabakitzen badu, begirune osoz jokatu berarekin. Parrokia mailan eramaten da prozesu hori. Apostasia egin duenaren izena ez da kentzen bataiatuen zerrendatik, baizik, beste erregistro bat irekitzen da apostasia eskatu dutenen zerrendarekin.

Apostasia ez da derrigorrez fedearen ukoa. Nirekiko, batzuetan behintzat, Eliza ofizialaren kontrako errebolta edo asaldura gehiago da sinesmenari uko egitea baino. Nolabait esateko: ozen-

ki adierazi nahi du Elizaren zenbait jarrera eta ebanjelioa kontrajarriak daudela askotan eta hori ezin duela jasan.

Beste erlijioetan ere apostasiarik bada. Kristautasunaz at, islama ezagutzen dut ondoen eta Afganistanen, adibidez, islamari uko egitea heriotzarekin zigortzen da. Duela egun gutxi egunkariet ziotenez Abdul Rahaman harrapatu eta hiltzeko agindu zuten bertako buruzagi erlijiosoek. Islama utzi eta kristau bihurtzea leporatzen zioten. Apostasia egiteko asmoz etorriko balitzait norbait, bere erabaki hori begirune osoz hartzeaz gain, pare bat gauzatxo esango nizkioke:

A- Kristaugoa ez da talde monolitikoa: iritzi, ebanjelioaren irakurketa eta portaera oso ezberdinak daude bere baitan. Kontraesan latzak bizi ditu, baina, badiu baita, jende solidario, konprometitu, leial, gertuko eta fin anitz ere. Zergatik alderdi ezkorak bakarrik ikusi? Hor dauka Askapenaren teologiakoak milioika pariekin bat egiten dutenak; ikus dezala misiolariet ematen duten ikasbide paregabea; gure artean ere erakunde pilo dago baztertu mota guztiekin bat egiten duena: Cáritas, Gizartea Proiektu eta abar... Kontraesanik gabe bizi den pertsonarik ez da.

B- Erakunde bat aldatu nahi badu, kasu honetan Eliza, ez du lortuko ihes eginda, bere baitan borrokatuz baizik. Eta batez ere, ebanjelioaren testigu zintzo izatea litzateke bai Eliza eta bai mundua transformatzeko biderik egokiena. Duela egun batzuk bioetikako katedra kendu zioten Juan Masiá apaiz ospetsuari. Arrazoiak? Ez dagoela ados Eliza ofizialaren zenbait dotrinarekin. Baina, Elizaren baitan borrokatzen jarraitzeko asmoa du irakasle horrek. "Zuhurtziaz isiltzea immoral da", dio; eta salatzen du: "Elizaren tentazio eta bekatu handiena botereari eutsi nahi izatea da". Elizaren estilo anakroniko eta ebanjelioaren aurkako zenbait jokabide horien kontra borrokatzeko asmoa du buru belarri, nahiz eta katedra kendu dioten.

Horra hor irakasbide egokia!

Ainhua Azpiroz - Aitor Landaluze - Luis Aranalde - Nerea Zinkunegi - Idoia Torregarai - Jose Piñas - Aritz Gorriti - Jakoba Errekondo

Ika-mika

Azken NOAUA! aldizkarian, gaurko Udalak Artzabal baserrirako egitasmo berri bat azaldu eta proiektua ere enkargatu egin du: Zahar Etxe berria.

Idea hau desagokia iruditzen zait, Artzabal baserrian XVIII. mendekoa Sagardo-etxea eraiki behar da, horretarako proiektua egin zen, Diputazioa eta Gasteizen egon ziren udal ordezkariak, erantzuna dirua falta izan zen, gaur egun Hernaniko Udalak aurreproiektua bakarrik eskuan dauka, Astigarragak intentzioa bakarrik. Honek ez du esan nahi herri anai hauekin lehia batean hasi behar dugula, baina Usurbilen sagardoak eta honen barruan dagoen ziklo guztiak garrantzi handia du, kultur, ekonomia, historia eta abar.

Orain dela urte gutxi Gure Pakea lokala dena berritu egin zen, ni neu bezero edo bisitaria naiz eta dena tope dagoela ezin da esan.

1970 Hego Euskal Herria osoan zahar etxeak non nahi eraiki ziren. 1980an gure herrialdean

Zahar Etxe berriaz

Larrialdi Plana onartu egin zen eta Udalak eta Diputazioak zenbait egitarau prestatu zituzten gure aiton-amon eta elbarrituak bere etxeetan laguntzak izateko.

1985ean Diputazioak Larrañaga legazpiarra diputatuaren eskutik, honako eskaintza egin zuen, San Estebango sanatorioa zahar erresidentzia bihurtu, 100 aiton-amonentzako (honen berri Salome Portu alkatearen ordekoa anderea oroituko da ziur aski). Usurbilgo Udalak aztertu ondoren ez zuen egoki ikusten halako zerbitzu erraldoia eta kaskotik urruti. Orduan, eztabaida luzean, EAKo zinegotziek Irazu etxea proposatzen zuten, hau ere ez zen onartu eta bitartean kanpoko enpresa bati ikerketa eskatu zitzaion. Ikerketaren laburpenak esaten zuten 2000 urtea baino lehen 25 oheko eraikinaren beharra izango zela (txosten hau eskuan izan nuen baina HBko bulegoa desegin zenean birziklatzea bota egin zuten).

Gure Udalak Eguneko Zentroa (2003) erai-

ki, martxan jarri (kontrata baten bidez) eta benetan hau haurtzaindegia bezala tope-tope dago.

Arau Subsidiario edo planeamenduan kiroldegi aurrean lur zatia dago Zahar Aterpea egiteko erreserbatua eta erosi gabea.

1986an pleno batean aho batez 2000 urtean 35 oheko Zahar Aterpea eraikitzea onartu egin zen, bozkatu zutenak zinegotzi eta alkatea, zinegotzien artean Salome Portu andreak bozkatu egin zuten.

Gure herriaren beharra Zahar Aterpe berria eraikitzea da, gaur 15 aiton-amon Usurbildik kanpo daude, bere jaioterrian lekurik ez dagoelako edo bere etxean ezin moldatu. Inguruko herririk zerbitzu hau dute eta gure herri hain "aberatsa" ez. Dirudi gure Udal eta Diputazioko agintariek beste lehentasunak dituztela.

Manu Aranburu

Jaietako danborradako entseguak hastera doaz

Santixabeletako haur eta helduen danborrada taldea hasi da lanean, urtero garai honetan bezala. Eurak izango dira herriko jaietan kaleak danbor soinuekin girotuko dituztenak, eta eurak ere maiatzetik Santixabelak arte astero-astero entseatuko dutenak. Horregatik, jada zehaztu dituzte izen emateko zein entseatzeko egunak. Laister hasiko gara beren erritmoen ohiartzunak herrian zehar entzuten.

Haur danborrada

Haurrek helduek baino lehenago eman beharko dute izena: maiatzaren 5a ostirala, haurrek izena emateko eguna izango da. Agerialden, 17:15ean. Lehen entsegu eguna, berriz, maiatzaren 12an izango da; hau ere Agerialden eta 17:15etik 18:00ak arte. Horrela izango da ostirale-
ro.

Helduen danborrada

Helduak izen ematearekin batera hasiko dira danborradarako entseatzen. Hauek ere, maiatzaren 12an hasiko dituzte beren danbor saioak, eta egunean bertan eman beharko dute izena. Agerialden bilduko dira, baina gau partean, 20:30etik 21:30era, eta ostiralero ordutegi bera izango dute.

NEREA KORTA



HAUR DANBORRADAREN ENTSEGUAK MAIATZAREN 5EAN HASIKO DIRA. HELDUENAK, MAIATZAREN 12AN. ENTSEGU DENAK AGERIALDEN EGINGO DIRA.

Maiatzaren 10ean, Jai Batzordearen bilera

Duela bi hilabete hasi zen Santixabeletako Jai Batzordea biltzen. Bi hilabete eskas falta dira jaietarako eta azken gauzak lotzen hasteko garaia da. Zeregin hori izango du maiatzaren 10eko Jai Batzordearen bilerak.

Bilera udaletxean egingo da, arratsaldeko 19:30etik aurrera.



teilatuak eta fatxadak
JOSE AIZPURUA UNANUE



Obaba kalea 29 • ASTEASU
© 943 69 68 52 • 620 800 186

LATXA
kalea denda

Janari prekozinatuak
Kongelatuak
Bertako produktuak

Kale Nagusia 11, 40011 • Tel. 943 37 33 48

Patri Jatetxea



K/nagusia 14. © 943 362 725

LATAILLADE
ITURGINTZA

GASA
BEROKUNTZA
MANTENIMENDUA ETA
KLIMATIZAZIO INSTALAKUNTZAK

Ariztitxo 8, behea • 943 363 348 • 609 888 021

Kale nagusia, 10
Telf. 943 37 33 48
943 37 09 13

Okindegia - Gozolegia

LABE-GOXO

Zendoia



Kale Nagusia 35 • 943 37 40 71

Jose Ramon Furundarena, Jexux Artze Taldeko kidea “Ekitaldi xumeen aldeko apostua egin dugu”

Aurten ere, Jexux Artzeren omenez zenbait ekitaldi antolatu ditu Jexux Artze Taldeak. Lehengo alean aipatu bezala, emanaldi denak Sutegi Kultur Etxean izango dira. Jose Ramon Furundarenak eman dizkigu egitarauaren xehetasunak.

NOAUA! Zer ikusiko dugu aurten Jexux Artzeren omenezko kultural-dian?

Jose Ramon Furundarena. Aurten hiru ekitaldi antolatu ditugu: maiatzaren 5ean “Aupa Etxebeste!” pelikula arrakastatsua ikusteko aukera izango dugu. Telmo Esnal eta Asier Altuna zuzendarien lehen luzemetraia honek kritika eta publikoaren onarpena jaso ditu eta ziur gaude denon gustukoa izango dela. Maiatzaren 6an Pier Paul Berzaitz eta bere taldearen kontzertua entzuteko parada izango dugu. Berzaitz zuberotarra da eta aspaldi hasi zen kantari. Hainbat pastoral idatzi ditu, Elkano ikiuskizuna produzitu zuen eta hiru disko ditu kalean. Azkenekoa iaz argitaratu zuen “Lili baten kantorea” izenburuarekin eta Jexux Artze taldeko oi asko gustatu zitzaigunez, momentu ona iruditu zitzaigun Usurbila ekartzeko eta bere kantu eta instrumentazio ederrekin gozatzeko. Maiatzaren 13an Ez dok Hiru bikoteatro konpainia “Larru haizetara” antzezlanarekin etorriko zaigu. Mikel Martinez eta Patxo Telleria aktore ezagunek euskaldunen bizitza sexual... tristea aitzakia harturik barre eginaraziko digute.

N. Zein izan da aurtengo apustua?

J. R. F. Hasieratik gustatu zaigu kontzertuak eta hitzaldiak antolatzea eta aurten bestelako ekitaldiak ere ekarri nahi izan ditugu. Usurbilen antzerkia gustukoa denez, antzezlan bat ekartzea erabaki genuen eta pelikulak ere jende asko erakarriko duela uste dugu.

Lourdes Iriondo, “Ez dok amairu” taldeko abeslari eta idazlea orain dela hila-bete batzuk hil zela kontuan harturik, bere oroimenezko ekitaldi bat antolatzaren saiatu gara, baina azkenean ezin izan dugu egin. Helburua, guztia aste betean biltzea baino gehiago, maiatzaren 3aren inguruan egitea da.

N. Aurten Sutegin burutuko dira ekitaldiak. Ze abantaila du honek?

J. R. F. Aurreko urteetan ere ekitaldiak gustura egingo genituen Kultur Etxean baina 2006 arte itxaron behar izan dugu. Iaz Oiardon antolatu genituen bi kontzertuetan bildu zen jendea gutxitxo izan zen hain leku handi baterako. Beraz Sutegiko auditorioaren tamaina egokiagoa da antolatu ditugun ekitaldietara etortzen den ikusle-entzule kopuruarentzat. Bestalde, azpiegitura teknikoa ona da, aulkiak erosoak dira eta guzti hori beti lagungarria izaten da.

JEXUX ARTZE TALDEA

“Lourdes Iriondoren omenez ekitaldi bat antolatzen saiatu gara, baina azkenean ezin izan dugu egin”

N. Lehenengo urteetan ekitaldi handiak egin zenituzten, baina aurtengo programa xumeagoa da. Puntuala da edo hurrengo urteetan ekitaldi handiagoak egiteko asmoa duzue?

J. R. F. Lehenengo urtean antolatu genituen ekitaldi ausartak eta jendetsuak berez sortzen joan ziren, ez hasieratik handinahikeriak bultzatuta, baizik, taldean sortzen joan zen dinamika berak bultzatuta. Orduko asmoa, urte horretako ekitaldiak antolatu eta taldearen eginkizuna bere horretan bukatzea



IAZ TXALAPARTA
KALEJIRA EGIN ZEN.

zen baino izandako arrakastagatik eta taldeko kideengan lanerako gogoia zegoenez, kultur ekitaldiak antolatzen jarraitu dugu. Jakina, ekintza xumeagoak egitea nahiago dugu, kultur etxean egiteko modukoak.

Sarrerak non eskuratu

“Aupa Etxebeste!”

Filma: Doan. Gonbidapenak aurretik jaso behar dira, pertsonako gehienez bi.

“Pier Paul Berzaitz”

Kontzertua: Aurretik 8 euro eta bertan 10 euro. Sarrerak Lizardin eta Mahukan.

“Larru Haizetara”

Antzezlanak: Aurretik 8 euro eta bertan 10 euro. Sarrerak Lizardin eta Mahukan.

Jexux Artze taldearen hiru proposamenak

Maiatzak 5, 22:00

“Aupa Etxebeste!” euskarazko pelikula

Aupa Etxebeste! ñabardura beltzak dituen komedia arina da. Protagonista ekonomikoki gutxira etorritako familia dugu. Herrian duen estatusa mantendu nahian, oporretara irten den planta egiten du, gero ezkutuan etxean geratzeko. Euskaraz eginiko filmak egitea posiblea dela frogatzen du, eta ondo gainditutako erronka dela gainera.



Maiatzak 6, 22:30

Pier Paul Berzaitz kantariaren kontzertua

Pier Paul Berzaitz gaur egungo Xiberuko kantu-egile eta kantari esanguratsuenetariko bat da. Ohiko kantagintzan oinarritzen den aparteko kantari honek, musikaren ikuspegi berria eta aurrerakoa erakusten du. Azken diskoa, “Baratze bat”, orain dela bost urte kaleratu zuen. Usurbila “Lili baten kantorea” disko berria aurkeztera dator.



Maiatzak 13, 22:30

“Larru haizetara” antzezlan

Barre-terapeutikoa da, dibertigarria, modernoa, baina batez ere beharrezkoa. Izan ere, euskaldunak oso atzeratuta gaude sexu konfuetan. Londresen neska-mutilek alkondaretan “I love sex” daramate. Parisen “Je suis un machine sexuel”. Sevillan “Nasío pa ligar” eta Cadizen “Nasío pa bacilar”. Azpeitian, aldiz, “Nazio... eztabaidagunea”.



Apirilaren 29an, “Ahulkiak” antzezlan

Bi aktore. Narratzaile bat. Ahulkiei buruzko testuak. Emanaldia aurrera joan ahala, narratzailea ahulduz joango da eta ustez menpean zituen aktoreak nagusitu. Pertsonaiek ez dute alde egin nahi. Beraiena da emanaldiaren azken zatia: apurk-apurka, irakurraldi arrunta zirudiena antzerki bihurtuko da. “Ahulkiak” antzezlan apirilaren 29an ikus ahal izango dugu Sutegin, gaueko 22:00etan hasita.

Aulkia. Ez egongo beste altzari bat gizakiaren antza handiagoa duenik. Aulki elektrikotik hasi eta bizargina-

ren aulkira, erregeen tronutik hasi eta behia jezteko erabiltzen den banketaxora, geltokietako aulki nahiz ospitaleko itxarongeletako eserleku plastikozko, badira mila eta bat aulki. Askotan, ordea, indarra zurrupatu ere egiten digu aulkiak, ahulki bilakatzen dela, alegia, eta bertan esertzen dena, patuaren mende dagoen desanparatu.

Historiako une ezberdinen errepaso egiten du errezitaldi antzeztu honek, beti ere, aulkiak (edo ahulkiak) protagonistatzat hartuta, eta eserita luze egoteak gutariko edonork aulki bihurtzeko dakartzan arriskuen berri gaztatuz.



Ahulkiak

Aktoreak: Itziar Lamuedra, Patxi Santamaria.

Testuak eta irakurketa: Harkaitz Cano.

Non: Sutegin, 22:30.

Aurtengo Sagardo Eguna, mundiala

Txile, Argentina, Brasil eta Kanada herrietako sagardoa ekarri nahi da XXV. Sagardo Egunean

Apirilaren 12an Sagardo Eguna aurkeztu zen Saizar sagardotegian. Aurkezpena egin izanak badu bere arrazoia: aurtengoa XXV. Sagardo Eguna izango da. Horregatik, Sagardo Egunaren Lagunak elkarteak egitarau zabalagoa prestatzea erabaki du. Urte osoan sagardoa eta sagardoaren kultura izango da hizpide nagusia gure herrian.

Eguraldi ederra egin zuen XXV. Sagardo Egunaren aurkezpen egunean. Saizar sagardotegian egin zen ekitaldia eta zenbait komunikabideetako kazetariez gain gonbidatu ugari bildu ziren bertan. Arizkungo Jo ala Jo Kultur Taldeak eman zion hasiera ekitaldiari sagar-dantza eta sagar-jotze saio batekin, eta jarraian Usurbilgo dantzariak eskaini zuten beren emeraldia.

Usurbilgoa, erreferentzia

Dantzen ondoren, lau hizlari igo ziren taula gainera. Hasier Etxeberria kazetari eta idazleak egin zituen aurkezle-lanak. Hasteko ohorea Luis Mari Ormaetxea alkateari eman zion, zeinak argi utzi zuen azken hogeita bost urteotan egindako lanak bere arrastoa utzi duela. Izan ere, Gipuzkoan zehar antolatutako diren antzeko festen erreferentzetar jo zuen Usurbilgo Sagardo Eguna.

SAGARDO EGUNA

Gipuzkoan zehar antolatzen diren antzeko festen erreferentzian bilakatu da Usurbilgo Sagardo Eguna

Gipuzkoako Sagardogileen lehendakari den Jose Manuel Gaztañagak, labur hitz egin zuen eta segituan eman zion hitza aurkezleak Jakoba Errekondori, Sagardo Egunaren Lagunak elkarteak kideari. Luzeago aritu zen Jakoba, sagardoa euskaldunon



MAIATZAREN 1EAN ZABALDUKO DA SAGARDO EGUNAREN INGURUKO ERAKUSKETA SUTEGIN.

historiaren bilakaerarekin lotuz. Duela lau mila urteko geure arbasoek sagarrondoaren berri bazutela azaldu zuen, eta XV. mendetik XVIII. mendera sagardoak merkataritzari eta Ameriketako kolonizazioari esker izan zuen loraldiaz mintzatu zen. Ameriketara bidalitako ontzietako asko Aginagako erriean egiten zirela, eta marinelentzako edaria sagardoa izan ohi zela esan zuen. Loraldi horri esker sortu ziren baserriak, sagardotegi handiak. Baina XVIII. mendetik aurrera gainbehera izan zuen merkataritzak eta XX. mende amaierara arte sagardorentzat ere garai txarrak izan zirela kontatu zuen. Hala ere, duela hogeita bost urtetik hona sagardogintzak izan zuen loraldi berriaz aritu zen, hein handi batean Usurbilen sortutako Sagardo Egunari esker izan baitzen. XXV. Sagardo Egun honetan egongo diren berezitasunak aipatu zituen: mundiala izango dela, besteak beste, Txile, Argentina, Brasil eta Kanada bezalako herrietako sagardoa ekarri nahi delako, eta urtean zehar egingo diren ekitaldien egitaraua azaldu zuen. Azkenik Rafa Uribarrenek, Gipuzkoako Foru Aldundiko Landa Garapenerako dipu-

tatuak hitz egin zuen, oso labur honek ere, bere esker ona azalduz.

Joxanton Artze, ohorezko lagun

Arte gogora ekarriz, Hasier Etxeberriak Joxanton Artze gonbidatu zuen taula gainera hizlarien txanda amaitutakoan. Poema bat irakurri zuen Artzek, sagarrondoari idatzitakoa. Hitz pausatuz eta eskuineko besoarekin erritmoa nabarmenduz errezitatu zuen olerkia, lasaitasun handiz. Eta txalo uholde baten ondoren, marra gorridun zapi zuria jarri zioten lepoan, ohorezko lagun izendatu baitzuten Sagardo Egunaren Lagunak elkarteak kideak. Begirada guztiak bat batean aldatu ziren lekuz, Arizkungo Jo ala Jo taldea kirikoketa jotzen hasi baitzen, sagarra jotzeko tresnekin txalaparta gogora ekartzen zuen musika eginez. Hizlariak sagardoa banatzen zitzairen bitartean gonbidatuentzako mahaiak prestatu zituzten sagardotegiko langileek, eta bertaratutako guztiek izan zuten zer jan eta zer edan: txorizo egosia, urdaiazpikoa, kroketak eta sagardo botila mor-doa.

25 urte, hamaika ekitaldi

Maiatzaren 21ean 25 urte beteko ditu Sagardo Egunak. Hori dela eta, urte osorako egitaraua prestatu du Sagardo Egunaren Lagunak elkarteak. Zalantzarik gabe, sagardoaren urtea izango da aurtengoa.

APIRILA

Apirilak 25 asteartea

Sukaldaritza ikastaroaren lehen saioa.

MAIATZA

Maiatzak 2 asteartea

Sukaldaritza ikastaroa, bigarren saioa.

Maiatzak 9 asteartea

Sukaldaritza ikastaroa, hirugarren saioa.

Maiatzak 12 ostirala

Dastatze afaria Xabier Kamio enologoarekin.

Maiatzak 16 asteartea

Sukaldaritza ikastaroa, laugarren saioa.

Maiatzak 21 igandea

Sagardo Eguna mundiala.

EKAINA

Ekainak 17 larunbata

Sagasti eta sagardotegi arteko ibilaldia.

UZTAILA

Uztailak 1 larunbata

Euskal Herriko Bertso Paper Lehiaketa. Santixabeletan urtero Bota Punttubak antolatzen duena, aurtan, sagardoari lotua.

Uztailak 12/13

Udako Euskal Unibertsitatean sagardoari buruzko ikastaroa, Baionan eta Usurbilen gauzatuko dena. UEU eta Iparraldeko Sagardogileen Sagartzea elkartearen laguntzarekin.

Uztailak 15 larunbata

Sagasti eta sagardotegi arteko ibilaldia.

ABUZTUA

Abuztuak 19 larunbata

Sagasti eta sagardotegi arteko ibilaldia.

IRAILA

Irailak 16 larunbata

Sagasti eta sagardotegi arteko ibilaldia.



URRIA

Urriak 21 larunbata

Sagasti eta sagardotegi arteko ibilaldia.

AZAROA

Azaroak 18 larunbata

Sagasti eta sagardotegi arteko ibilaldia.

ABENDUA

Abenduak 16 larunbata

Sagasti eta sagardotegi arteko ibilaldia.

Abenduak 17 igandea

Baserritarren Sagardo Eguna.

* Egunak gerturatu ahala, informazio eta xehetasun gehiago honako webgunean: www.sagardobil.com



Usurbil Autoak, S. C. L.

Zerbitzu Ofiziala

Zumartegi Poligonoa
Aitzearra kalea, 1
20170 USURBIL

Tlf: 943 36 10 79
Faxa: 943 36 62 92

DJ LARRA
-ezkontzak
-festak...
Tel. 615 713 204

Kalkos kopisteria
FOTOKOPIAK
zuri-beltza - koloretan
BANDERA SALMENTA
PINTORE KALEA 7 - LABARTE-DRIA
943 376 424 - 943 376 155 (FAX) kalkos@copisteriakalkos.com

EUSKAL OKELA
CASA DE CARRO DE CARRO DEL PAIS VASCO
h k k l , 4
T H 43 3 67 42
LK T
UT ZE ITZU
ETXK
K NQEL TU K

Joxe Domingo Aizpurua: "Kartzelatik kanpo errazagoa da gaixotasunari aurre egitea"

Gaixotasun larri bat atzeman zioten Joxe Domingo Aizpuruari eta horregatik utzi zuten libre duela hilabete eskas. Dagoeneko tratamenduan da baina baikor azaldu da NOAUA!ri eskainitako elkarrizketan.

NOAUA! Ezer baino lehen, nola aurkitzen zara?

Joxe Domingo Aizpurua. Tratamendua egiten ari naiz, erradioterapia (ebakuntza aurreko tratamendua). Bost aste egin beharko ditut tratamenduan. Oraingoz, eman dizkidaten analisiak eta emaitzak onak omen eta itxaropentsu.

N. Gogorak izango dira erradioterapia saioak.

J. D. A. Bai, hasieran ez da hain gogorra baina erradiazioa eta kimioterapia hartzen hasten zaren heinean moteltzen zoaz eta nekea sortarazten du.

JOXE DOMINGO AIZPURUA

"Ekaina bukaera edo uztaila hasiera aldera egingo didate ebakuntza"

N. Ebakuntza noiz egingo dizuten bala dakizu?

J. D. A. Ekaina bukaera edo uztaila hasiera aldera. Bost asteko tratamendua egin behar dut lehenik. Beste hilabetez atsedean eta ondoren ebakuntza. Gutxi gora behera, ekaina bukaera aldera edo uztaila hasiera aldera egingo didate ebakuntza.

N. Sorpresaz hartu zenuen kalera-tzeko agindua. Bapatean zure burua kalean ikusi zenuen, ezta?

J. D. A. Bai, halaxe izan zen. Bapatean. Banekien abokatuak eta Etxeratlekoak ari zirela eskaera hori egiten eta lantzen, baina justizia minis-



JOXE DOMINGO AIZPURUA, BAIONAKO TREN GELTOKIAN EGIN ZIOTEN HARRERAN.

teritzak eta gobernuek gurekiko duten jarrera zanpatzailea ikusita, itxaropen gutxi nuen. Hala ere, beti geratzen da itxaropen zirrikitu bat; borrokari utzi behar zaio itxaropen zirrikitu hori. Kasu honetan, ustekabe handiarekin lortu zen nire kaleratzea.

N. Paristik Baionara iritsi zinenean, tren geltokian jendea zenuen zain. Pozgarria izango zen.

J. D. A. Bai, bistan da. Lehenik pozgarria da kalean egotea horrelako egoera batean. Ez baita erraza kartzela barruan horrelako egoera larriari aurre egitea. Espetxeko erietxean, kartzelako erregimen berdinean jarraitzen duzu, bisita eskubidea kartzelan duzun berbera da. Bisiten kasuan, ez da zuzena eta ez da egokia gaixo dagoen bati espetxe-erregimena mantentzea. Nik eztabaida izan nuen medikuekin nola den posible eri dagoen batek bisitak kartzelan bezala izatea. Kanpoan dagoen gaixoaren kasuan bezala, egunero bisitak jasotzeko eskubidea terapiaren barneko neurria behar luke izan. Gaixo dagoenak behar duen laguntza animikoa eta morala bezala kontsideratua. Medikuek arrazoia ematen zidaten baina erabakiak justizia ministerioak hartzen zituela.

"Noski", erantzun nien medikuei, "baina zuek ere baduzue zeregin galanta hori zuzentzea exijitzeko garaian edota eskubide horiek bermatzeko garaian". Kanpoan zaudenean, zure hurbilekoekin eta etxekoekin batera eta baldintza hobegotan, errazagoa da gaixotasunari aurre egitea.

N. Zer nolako egoera bizi dute euskal presoek? Frantzian, gose greban dira hainbat preso.

J. D. A. Egoera txarrean. Kartzela pertsonaren askatasuna eta eskubideak suntsitzeko tresna da, han barruan eskubide horiek guztiak galduak dituzu eta hoiek lortzeko borrokatzea beste aukerarik ez duzu. Euskal preso politikoen kolektiboak bere borroka ildo propioa du, bere helburuak ditu eta borrokaldi iraunkor bati jarraitzen dio. Txapeoak, baraualdiak, enkarteladak... Oinarritzko eskubideak aldarrikatuz, estatus politikoaren alde, Euskal Herriratzearen alde, gaixoak askatzearen alde, hiru laurdenak beteta dituztenen alde...

Kolektiboaren borroka Euskal Herriari zor zaizkion eskubideen aldeko borroka da. Helburu horien alde borrokatzeagatik sartu zituzten preso eta horien alde borrokatzen jarraitzen du.

“Su-etenak itxaropenak ekarri ditu baina egiteko asko dago oraindik”

NOAUA! Atera zinenetik hona, ego-
era politikoa dezente aldatu da. Su-
etenaren aldarrikapena eta gero,
badirudi beste kontestu politiko baten
atarian gaudela. Hori ere, pozgarria
izango zen espetxean daudenentzat.

J. D. A. Bai, zalantzarik gabe. Zuk
ondo esan bezala, kontestu politiko
berri baten atarian gaude. Giroa sortu
da horretarako, kontestua oraindik ez
bada aldatu ere. Su-eten iraunkor honek
itxaropenak ekarri ditu. Gainontzean,
ikusteko eta egiteko asko dago. Dena
egiteko dago. Itxaropen neurtuarekin,
hankak lurrean dituela begiratzan dio
kolektiboak giro berri honi.

N. Espetxetik kanpo nola ikusten
duzu sortu den giroa. Zeintzuk izan
beharko lukete epe laburrean eman
barreko urratsak.

J. D. A. Alderdi eta agente sozial eta
politiko guztiak bildu eta akordio bat
lortzea, non akordio horrek bere baitan
bildu beharko lituzkeen Euskal
Herriaren ezagutza eta euskal herrita-
rren hitza errespetatzea. Hori izanen da
egiazko demokraziaren atea irekiko
duen giltza, hori gabe ezinezkoa da
egiazko prozesu demokratiko bat abian
ezartzea. Akordioa ahalik eta zabalen
egitea, agente politiko sozial guztiei
dagokien lana da. Herritarren indarra,
laguntza eta inplikazio osoarekin.
Horrelako prozesu bat ezin da bakarrik
agente politiko eta sozialen esku utzi.
Zeresanik badute baina herritarrek
oraindik zeresan eta zeregin handiagoa.

N. Zure lehentasuna ahalik eta
azkarren osatzea izango da. Dena den,
Usurbil bisitatzeko gogo izango zara.

J. D. A. Nire gogo nagusia da Euskal
Herri osoan libre eta aske ibiltzea.
Usurbil barne. Horretarako egiazko
soluzioak egon behar dira. Milaka
euskal herritarroi kartzelara eta exiliora
eramanarazi gaituzten arrazoiak
desagertzen ez direno ez da egiazko
bakarik izango.

N. Ez duzu hona etortzeko
baimenik.

J. D. A. Ni behin behineko askata-
sunean nago, ez nago epaitua oraindik.
Pirinio Atlantikoko departamenduan
asignatuta nago. Departamendutik ezin
dut atera. Oraingo, astean hiru aldiz
aurkeztu behar dut gendarmeriara.

JOXE DOMINGO AIZPURUA

“Horrelako prozesu batean
herritarrek zeresan eta zeregin
handia dute”

N. Usurbilen dituzun lagunei zer
esango zenieke?

J. D. A. Lagun eta herritar orori beti
esan diedana. Are gehiago, orain gau-
den momentuan. Egoera berri baten
atarian gauden honetan, aukera hau
baliatu behar dela eta guztion lana dela
eta ez bakarrik instituzio edo agente
politiko eta sozial batzuen. Baizik eta
herritar bakoitzarena. Lehen ere borro-
ka armatuaren aitzakiak ez zuen deus
balio, ez bazen behintzat norberaren
gezurra estaltzeko eta orain gutxiago.
Bakoitzak bere neurrian aukera honi
bere bultzada ematea, hori da esateko
dudan gauza bakarra.



ORAINGOZ EZIN DU PIRINIO
ATLANTIKOKO
DEPARTAMENDUTIK ATERA.

Apirilaren 29an omenaldia egingo zaio

Apirilaren 29an larunbata,
Aetxekoen eta lagunen ome-
naldia jasoko du Joxe Domingo
Aizpurua preso ohiak. Omenaldia
Donibane-Garazin egingo zaio,
eguerdiko 12:00etan. Omenaldia
eta gero, lunch moduko bat egingo
da. Usurbildik autobusa abiatuko
da. Autobuserako izena emateko,
ohiko tokietan.

IMANOL UBEDA

ERRAZKIN
IGELTSERITZA
OROKORRA
kale Nagusia, 1
Tel./Faxo: 943 365 125
Móbil: 629 420 565 - 649 435 470

MIKEL IZAGIRRE
ELEKTRIZITATEA
943 365 095
609 068 111
BOIZ ARRI ETXEA 37 KALEZAR

txirriStra
KONTSEJU ZAHARRA 13
943 360 400
pintxoak
ogitartekoak
platea konbinatuak
TABERNA

Egoera politiko berriari begira ospatuko da Maiatzaren Lehena

Mezu sozio-politikoak nagusi izango dira aurten ospatuko den langileen egunean. Usurbilgo LAB sindikatuak Donostian egingo den manifestaziora joateko deialdia egin du. Donostiako Boulevardean bilduko dira, eguerdiko 12:00etan. Ordu berean baina Bilboko Gran Vian, ELA sindikatukoak bilduko dira.

Sindikatuaren ohiko aldarrikapenekin batera, aldarrikapen politikoak ere nabarmenak izango dira Maiatzaren Lehenean. LAB sindikatuak igorri digun prentsa-oharrean behintzat nabaria da egoera politiko berriaren eragina: "konponbide politikorako bidean gaude, bakerantz aurrera egiteko momentu erabakigarrian, alegia. Baina hau posible bihurtuko bada, Euskal Herrian prozesu demokratikoaren bidez besterik ez da izango, herritar guztien eskubideak, hitza eta erabakia errespetaturik eta inolako interferentzia edo hipotekarik gabe".

Maiatzaren Lehenari begira, arlo sozialari ere erreparatu dio LAB sindikatuak: "beste eredu sozial bat aldarrikatzen dugu, elkartasunean oinarrituta eta aberastasuna justuki banatuko duena, aberastasun hori langileok geure lanaz ekoizten dugu eta. Ezetz esaten diegu esplotazioari eta bazterkeriari, prekarietate mota guztiei, genero edo arrazagatiko diskriminazioei, patronalaren nagusikeri eta larderiari, multinazionalen alde egiten duten estatuetaiko zein autonomietako gobernuen jarrerari".



LAB SINDIKATUA DONOSTIAN
BILDUKO DA; ELAKOAK, BILBON.

LABekoak Donostian

Maiatzaren lehenean Donostian egingo den elkarretaratzean parte hartzeko deia egin dute Usurbilgo LAB sindikatuko kideek. 12:00etan abiatuko da manifestazioa Donostiako Boulevardetik.

ELAkoak Bilbon

Egoera berriak ere baldintzatu du ELA sindikatuaren deialdia. Arlo soziala kontuan har dezatela eskatu die ELAk alderdi politikoei. "Eraikuntza nazionalik ez da izango dimentsio soziala kontuan hartzen ez bada", hala dio *Landeiak*, ELAren aldizkariak.

Prekarietatea eta egun martxan diren lan-gatazkak ere kontuan izango dituzte Maiatzaren Lehenan.

ELA sindikatukoak Bilbon bilduko dira. Eguerdiko 12:00etan abiatuko da manifestazioa Gran Vía kaletik.

Manifestazioa eta gero, ELAkoek bazkaria eta festa antolatu dute Barakaldoko BEC erakustazokan. Luhartz taldeak alaituko du bazkalostea.

Apirilaren 28a, Lan Segurtasunaren Eguna

Euskal Herrian bi egunetik behin langile bat hiltzen dela salatuko du ELAk apirilaren 28an. ELArentzat, egoera lazgarri honen lehen arduraduna patronala da: "ugazabek lan segurtasuna kostu gisa neuritzen dute, ez inbertsio bezala. Horrela, behin eta berriz urratzen dute lan-araudia".

Bigarrenik, ELAk administrazioaren ardura salatu nahi du: "administrazioak eskuak garbitzen ditu uneoro, gai honen inguruko eskuduntzarik ez duela erabiliz aitzakia bezala. Era berean, ELAk prekarietatearen eta lanean gertatzen diren ezbeharren arteko lotura azpimarratu nahi du". Azkenik, euren bizitzarekin ez jolasteko deia egiten die langileei.

LAB sindikatuaren esanetan, "2005eko datu lazgarriak konprobatazea besterik ez dago enpresetan prebentzioa egiten ez dela egiaztatzeko: 123 hildako lan istripuetan, 657 istripu larri eta 5.626 lan gaixotasun aitortuak".

LABen iritziz, "langile guztiei jakinarazi behar dizkiegu zeintzuk diren arazoak eta zeintzuk balizko konponbideak, guztiok parte hartu eta aurre egin dezagun. Hala ere, hau ez da nahikoa. Patronala salatu behar dugu, bera delako langileen osasun eta bizi galeraren erantzulea. Baina patronalaren konplizeak ere salatu behar ditugu: administrazio publikoa, prebentzio zerbitzuak, mutualitateak eta zerbitzu medikoak...".

Hau guztia salatuzko, elkarretaratzea antolatu du LABek. Donostiako Polloen bilduko dira apirilaren 28an, eguerdiko 11:30ean.



Kima

MASAJE LEKUA

Kirol masajea eta masaje terapeutikoa

Kale nagusia, 44- behe
LASARTE-ORIA

TEL. 36 61 97



BITXI
Tailerra
urte eta zilar
lanak
943 422 349

www.noaua.com
USURBILGO ATARIA

Maiatzaren 13an hasiko da Plis, Plas, Txalo ta Jolas

Zubietan hasiko da Plis, Plas, Txalo ta Jolas, NOAUA! Kultur Elkarteak urtero udaberri partean antolatzen duen zikloa. Poxpolo eta Mokolo pailazoak maiatzaren 13an hurbilduko dira Zubietako pilotaleku berrira. Pello Añorga ipuin kontalaria, Txatxilipurdi Euskal Karaokea, Kilimiska Animazio Taldea eta Pirritx eta Porrotx pailazoekin osatu da aurtengo egitaraua. Zubietan hasiko bada ere, Kalezar, Santuenea, Aginaga eta herriko frontoira ere iritsiko da Plis, Plas egitarauaren oihartzuna.

100 lagun Anariren jaialdian

NOAUA!ren ekimenez, Anari zuzenean aritu zen apirilaren 7an Sutegin.



EKAINAREN 15EAN PIRITX ETA
PORROTX PAILAZOAK ARITUKO
DIRA USURBILGO FRONTOIAN.

“Zebra” du izena azkoitiar kantariaren lan berriak, eta disko hori izan zen zuzeneko emanaldiaren oinarri nagusia. 100 izan ziren Anari ikustera animatu zirenak.

Beste bi domina

Amador Granadorentzat

Aurreko asteburuan jokatu zen Espainiako Txirrindularitza Egokituaren Txapelketa Tafallan. Amador Granado txirrindulari usurbildarrak onena izaten jarraitzen du. Pistako kilometroko lasterketa irabazi eta urrezko domina eskuratu zuen. Jazarpen proban, aldiz, bigarren izan zen Amador Granado eta zilarrezko domina etxeratu zuen.



AMADOR GRANADO, PODIUMAREN ERDIAN. KAIKU ETXEAREN BABESA JASOTZEN HASI DA.



Lehiaketa

Euskal Herriko plazatan 33 urtez aritu ondoren, milaka emanaldi eskaini eta gero, **Akelarre** taldeak 2005eko urtarrilaren 22an Hernaniko Oialumen eman zuen bere azken kontzertua. Horren testigantza jasotzen duen CDA + DVDA zozketatuko dugu maiatzaren 6an. Zozketan parte hartu nahi baduzu, **bidali e-posta bat maiatzaren 6a baino lehen honako helbidera: erredakzioa@noaua.com.** Animo eta zorte on!



Aurreko
lehiaketaren
irabazlea
MAITE SAGASTI

**Bidali e-maila erredakzioa@noaua.com.
Postaz Bordaberri 3 Ezuzkitzaldea -20170 USURBIL (Gipuzkoa).**

Eguneko goardiako farmaziak

Apirilak 27, osteguna
Gil, Nagusia 24 Lasarte

Apirilak 28, ostirala
Acha-Orbea, Hipodromo etor. 6 Lasarte

Apirilak 29, larunbata
Oa Kontzeju Zaharra 11 Usurbil
De Miguel, Nagusia 32 Lasarte

Apirilak 30, igandea
De Miguel, Nagusia 32 Lasarte

Maiatzak 1, astelehena
De Miguel, Nagusia 32 Lasarte

Maiatzak 2, asteartea
Orue, Jaizkibel 2 Lasarte

Maiatzak 3, asteazkena
Urbistondo, San Franzisko 1 Lasarte

Maiatzak 4, osteguna
Rodriguez, Nagusia 42 atz Lasarte

Maiatzak 5, ostirala
Gil, Nagusia 24 Lasarte

Maiatzak 6, larunbata
Iturralde, Bordaberri 1 Usurbil
Urbistondo, San Franzisko 1 Lasarte

Maiatzak 7, igandea
Urbistondo, San Franzisko 1 Lasarte

GOARDIAKO FARMAZIA, GAUEZ
Aizpuru Farmazia, Latsunbeberri 11, Hernani. 943 336 077 (Urte osoan).

2006ko egutegi osoa: www.noaua.com

Zubieta-Donostia TST autobusak

ASTE GUNETAN
Zubieta-Donostia
7:55*/9:30(T)/ 13:15(T)/
14:35*(T)/ 19:15(T)

Donostia-Zubieta
(Gipuzkoa plazatik)
7:15* /9:00/ 12:45(T)/
13:45*/18:45

LARUNBATETAN
Zubieta-Donostia
8:15(T) / 12:45 /
15:15(T) / 21:35(T)

(Gipuzkoa plazatik)
12:15(T) / 14:30(T) / 21:00(T)

JAI EGUNETAN
Zubieta-Donostia
11:25(T)/ 13:30(T)/ 15:30(T)/
21:35 (T)

Donostia-Zubieta
(Gipuzkoa plazatik)
11:00(T)/ 13:00(T)/ 15:00(T)/
21:00 (T)

* Eskola egunetan.

T Autobus aldaketa beharrezkoa da. 943 361740.

Autobus ordutegia Donostia-Zarautz

Donostia	Urbil	Usurbil	Zarautz
07.40		08.05	08.25
08.00		08.25**	
08.40	08.20	08.25	08.45
08.40		09.05	09.25
09.00	09.20	09.30	
09.00	09.20	09.25	09.45
09.40		10.05	10.25
10.00	10.20	10.25	10.45
10.40		11.05	11.25
11.00	11.20	11.25	11.45
11.40		12.05	12.25
12.00	12.20	12.25**	
12.00	12.20	12.25	12.45
12.40		13.05	13.25
13.00	13.20	13.30	
13.00	13.20	13.25	13.45 #
13.40		14.05	14.25
14.00	14.20	14.30**	
14.00	14.20	14.25	14.45
14.40		15.05	15.25
15.00	15.20	15.30	

■ Soilik larunbata gauz # Larunbatetan, Orion autobus aldaketa Aiara
■ Larunbat lanegunetan ■ Asteburutan, jaietan **Aiara

Harremanetarako: 902 54 32 10 / www.euskotren.es

Autobus ordutegia Zarautz-Donostia

Zarautz	Usurbil	Urbil	Donostia
06.45	07.05		07.30
06.45	07.05	07.10	07.30
07.15	07.35		08.00
07.45	08.05		08.30
07.45	08.05	08.15	08.40
08.15	08.35		09.00
08.45	09.05		09.30
08.45	09.05	09.15	09.40
	09.30	09.35	10.00*
09.45	10.05		10.30
09.45	10.05	10.15	10.40
	10.30	10.35	11.00
10.45	11.05		11.30
10.45	11.05	11.15	11.40
11.45	12.05		12.30
11.45	12.05	12.15	12.40
12.45	13.05		13.30
12.45	13.05	13.15	13.40
	13.30	13.35	13.55*
13.45	14.05		14.30
13.45	14.05	14.15	14.40

*Aiatic dator ■ Asteburutan, jaietan

■ Larunbat lanegunetan ■ Soilik larunbata gauz

Harremanetarako: 902 54 32 10 / www.euskotren.es

EuskoTren ordutegia

Donostia	Usurbil	Zarautz	Zarautz	Usurbil	Donostia
05.47*	06.03*	06.20*	06.08*	06.24*	06.39*
06.17*	06.33*	06.50*	06.38*	06.54*	07.09*
06.47*	07.03*	07.20*	07.08*	07.24*	07.39*
07.17	07.33	07.50	07.38*	07.54*	08.09*
07.47	08.03	08.20	08.08	08.24	08.39
08.17*	08.33*	08.50*	08.38*	08.54*	09.09*
08.47	09.03	09.20	09.08	09.24	09.39
09.20#	-	09.47#	10.08	10.24	10.39
09.47	10.03	10.20	11.08	11.24	11.39
10.47	11.03	11.22	11.22#	-	11.47#
11.47	12.03	12.20	12.08	12.24	12.39
12.17*	12.33*	12.50*	12.38*	12.54*	13.09*
12.47	13.03	13.20	13.08	13.24	13.39
13.17*	13.33*	13.50*	13.38*	13.54*	14.09*
13.47	14.03	14.20	14.08	14.24	14.39
14.17*	14.33*	14.50*	14.38*	14.54*	15.09*
14.47	15.03	15.20	15.08	15.24	15.39
15.17*	15.33*	15.50*	15.38*	15.54*	16.09*
15.47	16.03	16.20	16.08	16.24	16.39
16.17*	16.33*	16.50*	16.38*	16.54*	17.09*
16.47	17.03	17.20	17.08	17.24	17.39
17.17*	17.33*	17.50*	17.38*	17.54*	18.09*
17.47	18.03	18.20	18.08	18.24	18.39
18.17*	18.33*	18.50*	18.38*	18.54*	19.09*
18.47	19.03	19.20	19.08	19.24	19.39
19.17*	19.33*	19.50*	19.38*	19.54*	20.09*
19.47	20.03	20.20	20.08	20.24	20.39
20.21#	-	20.48#	21.08	21.24	21.39
20.47	21.03	21.20	22.07#	-	22.32#
21.47	22.03	22.20	22.38	22.54	23.09

* Asteegunetan bakarrik

#Ez da Usurbilen geratzen

Harremanetarako: 902 54 32 10 / www.euskotren.es

ULERTZEKO GARAI BERRIA

berria²

Agenda !!

Apirilak 28, ostirala

- Euskal presoak Euskal Herriratzeko eta bere estatus politikoa aitortzeko elkarretaratzea pilotaleku atzean. 20:00etan. Deitzailea: Etxerat!

Apirilak 29, larunbata

- 12:00etan Donibane Garazin, Joxe Domingo Aizpuruari omenaldia. Autobusean izena emateko, ohiko tokietan.
- 22:30ean "Ahulkiak" antzezlanaren SuteGIN.

Maiatzak 1/ maiatzak 21

- Sagardo Egunaren XXV urteak. Erakusketa SuteGIN.

Maiatzak 5

- Haur danborradan izen-ematea, 17:15ean Agerialden.

Musikaren txokoa !!



Jone anoetar gaztearen lehen diskoa

Jone kantariak bere lehen CDa aurkeztu zuen urriaren 20an, Donostiako Koldo Mitxelena Kulturenean. Bonberenea Ekintzak zigiluak argitaratu du aipatutako diskoa. Guztira, sei kantu berri grabatu ditu, Bonbereneako estudioan. Karlos Osinaga 'Txap' arduratu da grabazioaz, eta Jonerekin batera, Karlos Aranzegi (bateria), Fran



Iturbe (gitarra) eta Joni Ubeda (baxua) aritu dira.

Jone Otxoa-Aizpuruak bakarlariak gitarra eta ahotsa ditu musika tresna: "Duela lau urte inguru, gitarra-
ren laguntzarekin, nire lehen kantak egiten hasi nintzen, eta pixkanaka, kanta kopurua handitzen joan naiz. Bakarlari modura aritzen naiz eta egiten dudana musika motari dago-
kionean, nahikoa lasaia dela esango nuke".

Egin kontu !!

Maiatzaren 4an, haurrentzako masaje ikastaroa Santuenean

0-9 hilabeteko haurrentzako masaje ikastaroa antolatu du Santuenea Kultur Elkartek. Ikastaroa maiatzaren 4an hasiko da, arratsaldeko 17:30ean. Julia Arraiza hezitzaileak eta erizainak eskainiko du ikastaroa. Informazio gehiagorako eta izena emateko, deitu 943 37 15 35 telefono zenbakira.

Ostiral honetan, euskal presoak Euskal Herriratzeko elkarretaratzea

Ostiralean, apirilak 28, euskal presoak Euskal Herriratzeko eta bere estatus politikoa aitortzeko elkarretaratzea egingo da herriko pilotalekuaren atzean.

Etxerat!-ek hileko azken ostiralean antolatzen duen ekitaldia iluntzeko 20:00etan hasiko da.



Knk l
- L. ntz r
- Gz n zk n rr p
- ll ur ntz k
- Fix r k h r
- luan k
Zubiaurrenea, 3 33 17 7

ITURGINTZA
JOSEBA
ARANGUREN
943 830 072
659 883 912

MAHUKA
ETXEBESTE KALEA, 3- 943 361 105
Hemen aurkituko duzu
gizon eta emakumezkoen
MODAKO ARROPA

GORRITI
edaritegia
kafe berezia!
SAN ESTEBAN KALEA, 8 943 362 770

I n t n n - z r m u n l k
BENARAKO
BENITIK MAIOR...
Telf: 943 36 61 21 Alperroburu, 1

Usurbil-Zumarraga Herri Arteko txapelketan

Usurbilek larunbat honetan izango ditu XXXIX. Gipuzkoako Herri Arteko Pilota Txapelketako lehen kanporaketako joaneko partidak. Apirilaren 20an izan zen txapelketa honen aurkezpena eta bertan egin zen zozketan ez zuten zorte handiegirik izan. Izan ere, aurre kanporaketako bost norgehiagoketako bat jokatzeko egokitu zitzaion Usurbili, eta Zumarraga gaingitu beharko dute final zortzirenak jokatu ahal izateko.

Aurtengo edizio honetan 21 herri izango dira lehian eskuzko txapelketan eta azken urteetan ohikoa den bezala herriko pilotariak ere bertan izango dira. Urte asko pasa dira Usurbil txapelketa honetan parte hartzen hasi zenetik, eta urtea joan, urtea etorri, txapelketa honetako ohiko partaidea bihurtu da.

Larunbat honetan jokatuko dituzte kadete, jubenil eta nagusien mailako herriko pilotariak lehen kanporaketako joaneko neurketak. Arratsaldeko 18.00etan hasita Zumarragako pilotariak izango dituzte aurrez aurre. Enrike Huizi herriko ordezkariaren esanetan kanporaketa parekatua izan daiteke eta beraz, ondo jokatu beharko dute txapelketan aurrera egin nahi badute behintzat.

Joaneko partida hauetan, kadete mailan Imanol eta Eñaut Esnaola izango dira herriko ordezkariak eta Aleman-Biain Zumarragako bikotearen aurka jokatu



LARUNBAT HONETAN JOKATUKO DIRA LEHEN KANPORAKETAK USURBILEN.

dute. Jubenil mailan herriko Iñigo Irastorza eta Iker Zinkunegik Biana eta Oruesagasti izango dituzte aurrez aurre eta azkenik, nagusien mailan, Enrike Huizi eta Asier Arrutik Rodriguez eta Intxaustiren aurka jokatu dute.

Ondoren, maiatzeko lehen asteburuan Zumarragako Beloki pilotalekuan jokatu beharko dituzte herriko pilotariak kanporaketako itzuliko neurketak. Aurrera egiten duen taldeak Zegamaren aurka jokatu du final zortzirenetako norgehiagoka.

Bestalde, Gipuzkoako Herri Arteko Pala Txapelketan ere aurre kanporaketa jokatu beharko dute herriko ordezkariak.

Laugarren urtez jarraian pala motza eta paleta larruz modalitateetan jokatzen den txapelketan parte hartuko du Usurbilek eta Andoaingo palistak izango dituzte aurrez aurre lehen norgehiagokan.

Maiatzaren lehenengo asteburuan jokatuko dituzte joaneko partidak Zubietako pilotalekuan eta astebetera Andoainen jokatu beharko du Xabier Zubeldia, Mikel Mugika, Oidui Usabiaga, Jon Arruti, Mikel Arroyo, Haritz Urdanpilleta eta Haritz Zubiaurrek osatzen duten herriko taldeak.

JOSU ARANBERRI

Kirolgi fundazioak lagundutako kirolariak

Kirolgi Fundazioak urtez urte diru laguntzak ematen dizkie bakar-kako eta taldekako modalitateetan aritzen diren kirolari gipuzkoarrei eta herriko kirol taldeetan dabiltzan hainbat kirolari 2006an dirulaguntza jasoko dute kirolarien zerrendan ageri dira. Honela, Usurbil Judo Taldeko Oiana Blanco, Iker Lizarribar eta Maria Jose Sardon. Horrez gain, Amador Granados herriko txirrindulariak ere dirulaguntza jasoko du. Laguntza horiek jasotzeko, aurrez zehaztutako baldintzak bete behar dituzte kirolariak.

Nesken futbol taldea eta jubenilak Zubietan

Usurbil Futbol Taldeko emakumezkoen taldeak larunbatean jokatu du aurtengo denboraldiko azken neurketa. Zubietako belar artifizialeko zelaian Lasarteko Ostadar taldea izango dute aurrez aurre Kopa Txapelketako azken jardunaldian. Jubenilek ere Zubietan jokatu dute eta Luberri taldea izango dute aurrez aurre. Azkenik, 1. Errejon mailako taldeak Beti Ona taldearen aurka jokatu du Oretetan. Usurbildarrak 6. postuan dira eta 3 puntura dituzten taldeetako bat izango dute aurkaria.

Jubenilen eskubaloit taldea Alemanian

Usurbil Kirol Elkarteko jubenil mutilen eskubaloit taldea Alemaniako Biberach herrian izan da. IBOT 2006 nazioarteko eskubaloit txapelketa jokatu zuen Aste Santuan. Herriko jokalarik gazteek kadete mailan parte hartu zuten beste 15 talderekin batera eta lan txukuna egin zuten, 5. postua eskuratu baitzuten txapelketa amaieran. Hasierako ligaxkan 2. postua eskuratu zuten eta final zortzirenetan txapelketa amaieran garaipena eskuratu zuen LSP Potsdam I taldearen aurka galdu zuten.

Txerrimunik ordainetan !

ETXEBIZITZA

- Usurbilgo bikote gazte batek pisua alokatu nahi-ko luke Usurbilen. 679 185 102.
- Usurbilen pisua bat alokairuan hartuko nuke. Tel: 630 032 779.
- Usurbilen edo inguruetan 3 haur eta 2 helduentzat alokairuan hartzeko pisu bat bilatzen dut premiaz. 620 646 769.
- Usurbilen alokairuan etxe bat behar dugu. Ordainketa bermatua. 943365737.
- Capbreton (Landas) Home mobile alokatzen da. Bi logela dauka. Hondartza gertu. Guztiz jantzita, terraza eta jardina. Pazkoa, aste buruak eta udarako. Merkea. Camping La Civelles 3***. 685 721652 edo 665 734009.

SALEROSKETAK / GARAJEAK

- Garaje itxi bat alokatzen da Etxealdian, 22m2, kotxea erraz sartzen da, 76 euro. Interesatuak deitu arratsalde 943373185 telefonora.
- Lokal bat daukagu alokairuan 70m2koa. Interesatuak deitu 943 372 034.
- Aparkalekuak salgai Bizkarra 1-8 etxe aldean, Kale Nagusia 3. 607 905 859 (Imanol).
- Honda Dominator 650 cc motorra egoera oso onean. 667 172 010 (Jon).
- Garaje itxi bat alokatzen da Kale Nagusian. Interesatuak: 943 361 235.

LANPOSTUAK

Lan-eskaerak

- Kamarera bat eskaintzen da. Esperientziduna. 616273785
- Emakume bat eskaintzen da etxeko lanak egiteko, umeak eta helduak zaintzeko eta antzeko lanetarako. Interesatuak deitu 630274906.
- Bakeiran snow-ko klaseak eta ikastaroak ematen dira. Alojamentua ere eskaintzen da. Informazio gehiago: 652 651 906
- LH eta DBHko klaseak ematen ditut euskaraz zein erdaraz. Majisteritza ikasia eta esperientziaduna klase partikularrak ematen. 635209193.
- Bi neska lizentziatu eta esperientzidunak LH eta DBHko haur eta gazteei klase partikularrak ematen ditugu euskaraz zein gaztelezar. Interesatuak: 653711574.
- Emakume bat eskeintzen da etxeko-lanak egiteko, pertsona helduak zaintzeko edota antzeko lanetarako. 620 646 769.
- Kamarera euskaldun bat eskaintzen da astelehenetik ostiralera lan egiteko. 667 694 469.
- Emakume bat eskaintzen da astelehenetik ostiralera, pertsona helduak edo ezinduak zaintzeko. Telefonoa: 626 641 155 Mariaje.
- Taberna batean egingo nuke lan edo antzeko

zerbaitetan. 652 757 495.

- Portalak eta eskailerak garbitzeko neska bat eskaintzen da. Esperientzia horrelako lanetan. 690 784 113.
- Oporretako, ospakizunetako, edozein motatako bideoak montatzen dituen profesionala eskaintzen da. 943555835/ 617242660.

Lan-eskaintzak

- Antxeta tabernan bi langile behar ditugu: kamarera bat eta sukaldean aritzeko langile bat. 943 37 03 44. Ordutegia: astelehenetan, 13:00etik 16:30era. Asteartetik ostegunera, 13:00etik 16:00etara. Ostiralean, 13:00etik 16:00etara eta 20:00etatik 00:00etara. Larunbatean, 07:30etik 12:30era.
- Etxeko lanak egiteko eta haur bat zaintzeko egun osoz, pertsona baten bila gabiltza .645403905.

BESTELAKOAK / GALDUTAKOAK

- Urrezko pultsara bat galdu zait Artzabalgo frontoian edo inguruan. Aurkitzen duenak Noaua!ra eraman dezala. Eskupekoa emango da.
- Andoaingo Zine eta Bideo Eskolak 7 laburmetraia egiteko aktoreak behar ditu euskaraz zein erdaraz. 667886414 telefonora deitu (Miren).
- Antxumeak eta ibiltzeko zaldi bat saltzen ditut. Interesatuak deitu: 657633461.
- Argazki zaharrak berritzen eta txukutzen dira, baita ezkontza, opor edota beste edozein ospakizunetako bideoak editatu ere.Emaizta profesionala, modu onean. Telefonoa 617242660 edota zapore@euskalnet.net
- Telebista aldatzekotan bazara eta zer egin ez badakizu etxean daukazuarekin, gustora hartuko genuke. Deitu 943360321 telefonora eta geroni pasako ginatke jasotzera.
- Gazteentzat lokal bat alokairuan hartuko genuke. Gure telefono zenbakia: 667 694 049.
- Zubietatik Andatarako bidean hiru giltza topatu ditugu. Galdu dituenak jakin dezala udaltzaingoan utzi ditugula.
- Fatxada margotzeko pintura naranja salgai daukat, kalitate onekoa, prezio onean. 635 209 235.
- Bustner Fun modeloko 5 pertsonentzako karabana salgai. Komun kimiko bat eta sukaldea. 1.200km. Prezioa 6.000 e. 629 680 214.
- Umea eramateko mendiko motxila bat erosiko nuke. Tlfnoa: 605 72 48 24
- Pago egur txikitua eta lehorra salgai. Etxera eramaten da. Tf. 615 755 762.

Zorionak Izaro!

Maiatzaren 3an bi urte beteko dituzunez, muxu handi bat etxeko guztien partez.



Zorionak Ander!

Zutaz ahaztu ginela pentsatuko zenuen baina ez, muxu handi bat etxekoan partez.



Zorionak Malen!

Apirilaren 23an lehen urtebetetze eguna ospatu zenuen. Muxu handi bat guraso, aiton-amon eta izeba-osaben partez.



JAIOZAK

- Kimetz Arriaga Aizpurua Martxoaren 29an.

- Hodei Belaustegi Etxebarria Apirilaren 1ean.

HILDAKOAK

- Pepita Agirre Tolosa (Aginaga) Apirilaren 8an hil zen.



J.ORBEGOZO
ITURGINTZA • GASA • BEROKUNTZA
BIZKARRA 1, 1.EBK 943372937 659602789

Industri eta Iragarki
SERIGRAFIA
TANPOGRAFIA
PSU
943 371 954
UGALDEA PDL 36-2-USBIL

ALIPROX
Kale Nagusia 10
☎ 943 361 182
USURBIL

Iritsi da errenta aitortpena egiteko garaia. Herritarrok administrazio-izapideak euskaraz egin nahi ditugula adierazteko une egokia. Ahalegin honetan, Buruntzaldeko udaletako Euskara Batzordeek “Egizu euskaraz errenta aitortpena” kanpaina jarri dute martxan. Foru Aldundiak ere dei egin die gipuzkoarrei, aurtan errenta aitortpena egiterakoan euskaraz egin eta aurkez dezaten.

Egizu euskaraz errenta aitortpena

Aurtan, errenta aitortpenaren kanpainan hiru puntu garrantzitsu nabarmendu behar dira:

- Seigarren urtez segidan prestatu eta bidali dira zergadunen helbidera autolikidazio proposamenak. 110.000 proposamen baino gehiago prestatu dira eta, bigarren urtez, ordaintzeko emaitza duten proposamenak ere sartu dira. Azpimarratzekoa da Gipuzkoako zergadunek oso ondo hartu dutela modalitate hau. Azken kanpainan 92.367 proposamen onartu ziren, bidalitakoan %78.

- 2005eko abenduaren erdialdean, Foru Aldundiko Fiskalitaterako eta Finantzatarako Departamentuak errentako laguntza programa argitaratu zuen Interneten (www.gipuzkoa.net webgunean). Aurreneko aldiz, zergadunek eta beren ordezkariak zerga ekitaldia amaitu aurretik eskuratu ahal izango dute programaren bertsio bat.

- Kanpainako Zerbitzuen Karta berrikusi da. Herritarrei ahalik eta zerbitzu osatuena eskaintzeko konpromisoa areagotu egin nahi du Foru Aldundiak. Errenta aitortpena egiterakoan eskura jarri diren zerbitzu ezberdinen ezaugarriak eta baldintzak jakinaraziz, zergadunen eskubide eta bermeak ezagutaraziz, eta Fiskalitaterako eta Finantzatarako Departamentuak kalitate mailan hartu dituen konpromisoak adieraziz.

Euskaraz egiteko joera gorantz doa

Foru Aldundiko Fiskalitaterako eta Finantzatarako Departamentuak zenbait neurri hartu ditu Gipuzkoako herritarrek errenta



ASTE HONETAN HASI DA ERRENTA KANPAINA ETA EKAINAREN 26AN AMAITUKO DA.

ERRENTA AITORTPENA

“Buruntzaldean, %131,13 handitu da harremanak euskaraz izan nahi dituzten zergadunen kopurua”

aitortpena ere euskaraz egin ahal izan dezaten. Errenta kanpainako langileen artean egin den sentsibilizazio lanari esker, lehenik euskaraz mintzatzen ahaleginduko dira eta gero errenta aitortpena egingo duen herritarrek hautatuko duen hizkuntzan jarraituko dute. Ez hori bakarrik. Errenta aitortpena euskaraz egiteko kanpainak ere egin dira.

Ahalegin hauek guztiak ez dira oharkabeen pasa. Azken lau urteotan

Gipuzkoan %16,9 igo da harremanak euskaraz izan nahi dituztenen portzentajea. Herri edo eskualde guztiek ez dute bilakaera bera izan. Herri batzuetan igo egin da eskaera eta beste batzuetan jaitsi; hala ere, igoera handiena herritarren artean kontzientziazio kanpainak egin diren lekuetan gertatu da.

Euskarazko aitortpen gehien, Buruntzaldean

Zentzu horretan, nabarmentzekoa da Buruntzaldeko eskualdean eman den bilakaera. 2001ean, 31.261 ziren euskaldunak Buruntzaldean (Lasarte-Oria, Andoain, Urnieta, Hernani, Astigarraga eta Usurbilen).

2000 urteko errenta kanpainan, harremanak euskaraz izan nahi zituztela eskatu zuten zergadunak 697

izan ziren Buruntzaldean. 2004an, ia hirukoiztu egin zen kopurua: 1.616.

Donostian, esate baterako, euskaldunen kopurua bikoitza da: 60.415. Iazko errenta kanpainan harremanak euskaraz eskatu zuten donostiarrak, ordea, soilik 2.100 izan ziren.

Buruntzaldearen pareko eskualdeetan ere, oraindik gutxi dira harremanak euskaraz eskatzen duten zergadunak. Bidasoan eta Buruntzaldean, euskaldunen kopurua parekoa da baina Buruntzaldearekin alderatuz, Bidasoan soilik herena izan zen euskaraz aritu zen zergaduna. Deba Goienan, 40.000 biztanle dira euskaldunak eta, hala ere, ez dira Buruntzaldeko kopurueta iristen.

Zein da arrazoia? Euskara Batzordeetatik egin den motibazio lanak zeresan handia du. Azken bost urteotan, %131,13 handitu baita harremanak euskaraz izan nahi dituzten zergadunen kopurua Buruntzaldean. Beraz, esperientzia honek erakusten du kanpaina eragigarrien bidez asko handitu daitekeela euskarazko eskaria.

Bistan da. Gero eta gehiago dira errenta aitortpena euskaraz egiten duten herritarrak. Hala ere, askoz ere gehiago dira gazteleraz egiten dutenak. Hortik dator "Egizu euskaraz zure errenta aitortpena" kanpaina, Buruntzaldeko udaletako Euskara Batzordeek abiarazi berri dutena.

Egia da diru-kontutan hizkuntza ohiturak aldatzea zaila izan daitekeela. Baina errenta aitortpenaren kasuan, euskaraz egiteko erraztasunak gero eta gehiago dira. Horretarako, aitortpen-modalitate bakoitzean hizkuntza noiz eta nola aukeratu behar den azaltzen digun diptikoa banatu dute Buruntzaldeko udaletako Euskara Batzordeek.

Horrekin batera, gogoan izan errenta aitortpena euskaraz egiteko aukera ematen duten establezimenduak ere badirela. Aldameneko iragarkian dituzu errenta aitortpena euskaraz egiten lagunduko dizuten artekaritza, finantza erakunde eta Foru Aldundiko Ogasun Bulegoaren helbideak.

Euskarazko inprimakia azalpen argigarriekin datoz

Orain dugu errenta aitortpenaren inprimakia euskaraz betetzen hasteko aukera paregabea. Inprimakien atzeko orrialdeetan azalpen argigarriak jasota daude. 109 eredu hartu dugu adibide gisa. Eredu honen atzeko orrialdeetan, bete beharreko eremuen inguruko xehetasunak topatuko dituzu. Zalantzarik edukiz gero, artekaritza eta finantza erakundeetan galde egin. Edota Foru Aldundiko Ogasuneko langileari galdetu. Hona hemen ohikoak diren zalantzen azalpenak.

(1) IFZ: Enpresari edo pertsona fisikoari dagokion Identifikazio Fiskaleko Zenbakia (gazteleraz, NIF delakoa).

(2) Ezkontza erregimena: Egoera zibila zein den. Ezkon-gabe, ezkondu, alargun, epai bidez banandua ala izatezko bikote-lagunik baduzun azaldu beharko duzu.

(3) Zergaduna: errenta aitortpena egin behar duena.


(4) Adingabeko seme-alabak. Errenta aitortpena egin behar duenaren seme-alabak, 18 urte baino gazteagoak direnak.

(5) Ahaide. Senide hitzaren sinonimoa da ahaide.

(6) Tributazio mota. Zerga-ordainketa nola egin behar den. Banaka ala familia unitate bezala.

(7) Interes sozialeko beste xede batzuetarako. Errenta aitortpenaren kuota osoaren zati bat Eliza Katolikoa laguntzeko edo interes sozialeko beste helburu batzuetarako erabili daiteke.

(8) Ordezkar edo aurkezlea. Zergaduna ordezkatzen duena edo aitortpena aurkezten duena.



Formulario de declaración de renta en euskara. El encabezado indica "PERTSONA FISIKOEN ERRENTAREN GAIKOKO ZERGA 2005" y el número "109". El formulario está dividido en varias secciones con explicaciones de los campos:

- IFZ⁽¹⁾**: Identifikazio Fiskaleko Zenbakia.
- Ezkontza erregimena⁽²⁾**: Egoera zibila.
- Zergaduna⁽³⁾**: Errenta aitortpena egin behar duena.
- Adingabeko seme-alabak⁽⁴⁾**: Errenta aitortpena egin behar duenaren seme-alabak.
- Ahaide⁽⁵⁾**: Senide hitzaren sinonimoa.
- Tributazio mota⁽⁶⁾**: Zerga-ordainketa nola egin behar den.
- Interes sozialeko beste xede batzuetarako⁽⁷⁾**: Errenta aitortpenaren kuota osoaren zati bat.
- Ordezkar edo aurkezlea⁽⁸⁾**: Zergaduna ordezkatzen duena edo aitortpena aurkezten duena.

INPRIMAKIEN ATZEKO ORRIALDEETAN AZALPEN ARGIGARRIAK DATOZ.

Errenta aitorpena 2005



Andoain, Astigarraga,
Herrani, Lesarte-Oria,
Urrutieta eta Usurbilgo
Udalek, Euskarako
Batasordeak.

Egizu euskaraz
errenta aitorpena

Finantza erakunde eta antzekaritzak bulegoak

Establezimendua	Helbidea	Telefona
	USURBIL	
FURUNDARENA	Ertebeste 9	943 366056
EUSKADIKO KUTXA	Ertebeste 7	943 364740
GIPUZKOAKO KUTXA	Kontzeju Zarra 9	943 361202

Errenta aitorpena: irailak 24 - azarrik 26. Mekanizazioa: Iñanostia, Antso Iñiturriaren hiribidea, 9
Telefonikoa: www.gipuzkoa.net/ogakuna/renta Info: 902 100 040

Laguntzailea: Gipuzkoako Foru Aldundia



ANDEWIRO IN
EUSKARAZ